

Zurekin

## Ernest Hemingwayren 'Fiesta. Eguzkia jaikitzen da' eleberria euskaratu du Koro Navarrok

Literatura Unibertsala bilduman kaleratu dute idazle estatubatuar ospetsuak 1926. urtean idatzitako nobela ezaguna



UNAI SARRIUGARTE

Jueves, 1 abril 2021, 22:09



**Ernest Hemingwayren 'Fiesta. Eguzkia jaikitzen da' eleberria** euskaratu du Koro Navarrok. Izan ere, Literatura Unibertsala bilduman kaleratu dute idazle estatubatuar ospetsuak 1926. urtean idatzitako nobela ezaguna. Astelehenean, aurkeztu zuten Donostian (Gipuzkoa). Agerraldi publikoan Anjel Lertxundik jantzi zuen argitalpena, hitzaurre batekin. Obra hau Igelak eta Erein argitaletxeek argitaratu dute Literatura Unibertsala bildumaren baitan.

Lan honek Paris du lehendabiziko kokaleku, han egingo baitute topo Jake Barnes **Lehen Mundu Gerrak zauritutako kazetariak** (narratzailea) eta Brett Ashley erizainak, Barneseekin maiteminduta ibilitakoak. Hala, beste estatubatuar batzuekin elkartuko dira, eta, boskotea Iruñeko (Nafarroa) Sanferminetara abiatuko da.

Hortaz, **bertan boskoteak Sanferminetan bizitako hamaika abentura** ematen dira aditzera. Izan ere, jai giroak dena ziprztinduko du, baita maitasun gatazkek zalapartaren artean dena blaitu ere. Bizipenok kazetaria estatubatuarraren eskuz jasoak izan ziren, Hemingway baten baino gehiagotan ibili izan baitzen Sanferminetako festa giroan murgilduta.

Iruñea nobelako kokapen nagusia da. Baina, Euskal Herriko beste zenbait txoko ere **islatzen dira lanean**, Donostia, tarteko. Izan ere, jendetza, alkohola edota festa bezalako eromen gaiak aintzat hartzeaz gain, beste zenbait etenaldi ere ageri dira, bakea, natura edota lasaitasuna, esaterako.

**Koro Navarro Etxeberria itzaultzaile euskalduna dugu.** Filologia Hispanikoa ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, eta irakasle lanetan aritu zen bertan. Hiztegi Batuko lantaldearen parte izan zen 1999 eta 2013 bitartean. 2003ko urtarrilean euskaltzain urgazle izendatu zuten, eta urte horretan bertan Literatur Itzulpenaren Euskadi Saria irabazi zuen, «Zortzi kontakizun» lanarengatik.

**TEMAS** Pamplona/Iruña, euskera, Sanfermines

### LO + LEÍDO

El Correo Zurekin

Top 50

- 1 Curryk adarra jotzen dio saskibaloari
- 2 Urdulizko Udalekuetan izena emateko epea ireki da gaur
- 3 Soldaduska aluaren istorioak
- 4 Natura entzuteak osasun mentalean on egin dezake ikerketa batek diogenaren arabera
- 5 Aiaraldea Ekintzen Faktoria proiektua aire berrietuekin dator


### Comentarios

PATROCINADA


### Fotos




El pequeño Izan necesita una bomba de insulina



Paula Echevarría abandona el hospital con su hijo Miguel en brazos



Mendiburu, tres décadas de la Escuela Vasca en el Museo Bellas Artes



Día internacional del beso: grandes besos de la historia

### Vídeos

Lander Álvarez de Eulate, zuhaitzak artelan bilakatzen dituen lorezaina

